



NAN



Urretxu-Zumarraga Ikastolako batxilergo bigarren mailako hiru ikasle gara eta mundu mailako arazo batez jabetu gara:

NBEren (Nazio Batuen Erakundea) [“World Population Prospects 2022”](#) ikerketak, 1950etik gaur arte 237 herrialdeetako munduko biztanleriaren estimazioak eskaintzen ditu. 2022ko berrikuspenak biztanleriaren proiektzioak aurkezten ditu 2100. urtera arte. Kalkuluen arabera, munduko populazioa ia 2000 milioi pertsonetan handituko da hurrengo 30 urteetan, gaur egungo 8000 milioitik 2050eko 9700 milioira pasatuz, eta, 2080aren erdialderako, 10.400 milioi ingurura irits daiteke.

Datu hauek ikusita, esponentzialki hazten ari den biztanleriak kontsumituko dituen elikagaien eskaerari erantzun ahal izateko, egungo elikagaien ekoizpena bikoiztu beharko dugu, maila jasangarri bat lortu ahal izateko.



NBEren [“Munduaren egoera demografikoa”](#) txostenean, gaur egun munduko herrialde jendetsuenak Txina (1.400 milioi) eta India (1.300 milioi) direla islatzen da. Biek 1.000 milioi biztanle baino gehiago dituzte, eta munduko biztanleriaren %19 eta %18 dira, hurrenez hurren. Munduko biztanleriaren %60 Asian bizi da, %16 Afrikan, %10 Europan, %9 Latinoamerikan eta Kariben.

Hazkunde demografiko horren ondorioz, elikagai-premia handia egongo da etorkizunean. Hori dela eta, elikagaien ekoizpena etengabe haziko da mundu osoan, mundu guztia hornitu ahal izateko, gero eta gehiago hazten jarraituko du produkzioak, eta baita behar gehiago sortuko da.

NBEren [“How to Feed the World in 2050”](#) txostenak dioenez, elikagaien ekoizpenaren hazkundeak %70 handitu behar du populazio zabal eta aberats hori elikatu ahal izateko. Gainera, nekazaritzara bideratutako lurak beren nutrizio-propietateak eta aberastasun biologikoa degradatzen hasi dira, jasaten duten etengabeko ustiatzearen eraginez. Era berean, biodibertsitatea desagertzen ari da lursailak abeltzaintzako ustiatze modura erabiltzeagatik, edo urak eta airea kutsatzen ari dira, isuritako gernua eta negutegi-gasen eraginez.

Elikagaien ekoizpenaren hazkunde esponentzialak egoera jasanezina planteatzen du, elikagai kopuru hori ekoizteko erabiltako baliabideak mugatuak baitira. Hori dela eta, ingurumenaren, iraunkortasunaren eta ekoizpenaren ikuspegitik, beharrezkoa izango da nekazaritza eta abeltzaintzako ustiapen-metodo berritzaileak aplikatzea. Honen helburu nagusiak ekoizpen handiagoak lortzea, ekosistemari kalte txikiagoa egitea, iraunkortasuna eta planetako ingurumena eta baliabideak errespetatzea dira. Beraz, munduko etorkizuneko biztanleriaren elikadura guztiz lotuta dago elikagaiak ekoizteko ekimen berri eta alternatiboen garapenarekin. Ekimen horietan, laborantza eta abeltzaintza-teknika berritzaileak sartzen dira. Teknika horiek produktiboagoak, iraunkoragoak eta errentagarriagoak dira, eta elikagaien epe luzeko ekoizpenean hazkunde jarraitua eta progresiboa mantentzea ahalbidetzen dute.

Honen harira, datorkigun egoera kezkarria kontuan hartuta, guk proiektu bat aurrera eramatea erabaki dugu beharrezko elikagaiak eta mantenugaiak sortzeko. Gaur egun animalia-proteina ekoizteko dauden bide tradizionalak oso kutsakorrak direnez eta ingurunearekiko zein naturarekiko inpaktu negatiboa dutenez, alternatiba berriak bilatu nahi ditugu, jasangarriagoak, kalitate hobekoak, errespetu eta moral handiagoak direnak.

Korronte berrien artean landare-proteinaren kontsumoa dago, normalean lekaleetatik lortzen dena. Honen ondorioz, hainbat enpresa lekaleen bidez proteina asko duten produktuak egiten hasi dira.

Gure kasuan, proteina duten produktuak egingo ditugu ere, baina lekaleetan oinarritu beharrean, intsektu-proteinaren ekoizpenean oinarrituko gara.

Nahiz eta gizarte aurreratuenetan haien kontsumoarekiko erresistentzia egon, kontuan izan behar dugu insektu jangarriak beti izan direla gizakien dieten parte. Guk, entomofagiaren bidez lortu daitezkeen proteinak oinarri hartuta, produktu desberdinen ekoizpena aurrera eramango dugu: ogia eta jogurta besteak beste.